


SSIFF 

**Donostia Zinemaldia
Festival de San Sebastián
International Film Festival**



Jasangarritasuna ebaluetzeko eta karbono- aztarna neurtzeko txostena 2023-2028

sanebastianfestival.com

   #71SSIFF

Babesle Ofiziala
Patrocinador Oficial
Official Sponsor

rtve

Media Partner

M+

Laguntzale Ofizialak
Colaboradores Oficiales
Official Collaborators



k
kutxabank

Instituzio Kideak
Instituciones Socias
Associated Institutions



EUSKADI
BASQUE COUNTRY





SSIFF

Donostia Zinemaldia
Festival de San Sebastián
International Film Festival

Babesle Ofiziala
Patrocinador Oficial
Official Sponsor



Media Partner



Laguntzaile Ofizialak
Colaboradores Oficiales
Official Collaborators



Instituzio Kideak
Instituciones Socias
Associated Institutions



Aurkibidea

01. Sarrera	4
02. Helburuak	4
03. Irismena	5
04. Onurak	5
05. Araudia	6
06. Mugarriak	6



01. Sarrera

Donostia Zinemaldiak, klima-aldaketaren aurka duen konpromisoari jarraikiz, bost urterako jasangarritasun-plan bat prestatu du. Erakundearen asmoa da emisioak «zero garbiraino» murriztera iristea. «Zero garbia» terminoak esan nahi du berotegi-efektuko gasen emisioak emisio nuluetatik ahalik eta gertuen utzi arte murriztea, eta hondar emisioetako batzuk atmosferak berak xurgatzea, ozeanoen eta basoen bidez, adibidez.

Zientziak frogatu duenez, klima-aldaketaren inpakturik okerrenak saihesteko eta planeta bizigarri bat kontserbatzeko, munduko tenperaturak ez luke industriaurreko maila baino 1,5 °C handiagoa izan beharko.

Gaur egun, Lurra 1,1 °C beroagoa da, XIX. mendearen amaierarekin alderatuta, eta emisioek ugaritzen jarraitzen dute.

Berotze globala 1,5 °C-tik behera mantentzeko, Parisko Akordioan eskatu zen moduan, 2030erako isurketak % 45 inguru murriztu behar dira, eta 2050erako zero garbia lortu behar da.

Zero emisioeko Zinemaldia lortzeko trantsizioa erronka bat da erakundearentzat. Horretarako, gure jarduera guztiak prestatu behar ditugu, ekoizteko, kontsumitzeko eta lekualdatzeko modua eraldatzeko prozesuan gertatzen den aurrerapen oro ezartzeko. Nazio guztiek hartu dute horretarako konpromisoa.

Energiaren sektoreak eta garraioak eragiten dituzte, gaur egun, berotegi efektuko gasen emisio gehienak, eta horietan dago klima-aldaketaren ondorio okerrenak saihesteko gakoa. Kutsadura-iturriak –esaterako, ikatz, petrolio edo gas bidez energia ekoiztea– energia-iturri berriztagarriez –hala nola eguzki-energiatz edo haize-energiatz– ordezkatuz gero, karbono-emisioak nabarmen murriztuko liriteke. Bioerregaietan eta garraibide ekologikoagoetan egindako aurrerapenak ere zero emisioak lortzeko zutabeetako bat dira.

Zinemaldiaren helburua da teknologiak eskaintzen dituen aurrerapen guztiak txertatzeko plangintza egitea, eta pixkanaka ekitaldiaren emisioak murriztea, Zinemaldiaren esparruan programatzen den jarduera bakoitzaren ingurumen-efizientzia maximizatuz. Prozesu jarraitua da, urtero berrikus daiteke, eta bost urterako jasangarritasun-plan hau du abiapuntu.


02. Helburuak

Bost urterako jasangarritasun-plan honen helburua da datozen urteetarako jasangarritasun-arloko ibilbide-orria ezartzea, eta bete beharreko helburuak zehaztea, Zinemaldiak hartzen dituen neurrien efizientziaren jarraipena egin ahal izateko.

Zinemaldiaren aurreko edizioeko neurketan oinarrituta, hautemandako hobekuntza-aukerak deskribatuko dira, eta mugari batzuk ezarriko dira hobetu beharreko arlo horietan, jarraipena egin ahal izateko, urtez urteko bilakaera kuantifikatuta. Plan hori urtero doitu da, teknologiak jasangarritasunaren arloan egindako aurrerapenak eskaintzen duen berrikuntza jasotzeko.

Ekintza batzuk zehaztuko dira, hobetzeko aukera gisa ezarritako arloetan aurrera egiteko. Berehala hasiko gara ekintzok martxan jartzen, Zinemaldiaren hurrengo edizioan emaitzak ebaluatzen hasteko.

Jasangarritasun-plana zazpi palanka estrategikotan egituratuko da, Creast enpresaren metodologiak jasangarritasuna xehatzen duen zazpi emisio-kategoriari jarraikiz:





03. Irismena

Bost urterako jasangarritasun-planaren jarduera-eremua zehaztea

Irismena denboran

Jasangarritasun-planak bost urteko epea izango du.

Irismena lurraldean

Bost urterako jasangarritasun-plana donostiako zinemaldira eta erakundearen jarduera guztietara mugatzen da, hirian bertan edo nazioko zein nazioarteko beste leku batzuetan egiten diren gorabehera.

Erakundearen jarduerak barne hartzen dituzte zinemaldia sustatzeko beste hiri batzuetan egiten diren ekitaldiak, bai eta zinemaldiaren antolatzaile eta ordezkariak beste jaialdi batzuetan egiten dituzten bidaia ofizialak ere.

Emisioen irismena

Jasangarritasun-planean 1., 2. Eta 3. Irismeneko emisioak sartzen dira; hau da, zuzeneko emisioak, energia-kontsumoaren ondoriozko emisioak eta zeharkako emisioak, hurrenez hurren.

04. Onurak

Jasangarritasun-plana ezartzearen onurak epe ertainean

- Planeta hobetzen laguntzea eta pertsonen ongizatea bultzatzea.
- Zinemaldiaren marka-irudia hobetzea.
- Produktibitatea handitzea eta kostuak murriztea. Jasangarritasunak efizienteak izaten, ahalegina optimizatzen eta baliabideak kontserbatzen laguntzen digu, eta horrek langileen zereginak hobetzen eta kostuak murrizten ditu, eta ura eta energia kontserbatzeko estrategiekin lotuta dago.
- Legeria betetzeko gaitasuna handitzea. Jasangarritasuna Zinemaldian integratzea lagungarria izango da gizarte- eta ingurumen-arloko araudi berriei modu errazean aurre egiteko, erakundea beti pauso bat aurrerago joango baita.
- Langileak eta inbertitzaileak erakartzea. Jasangarritasuna balio garrantzitsuenetako bat bilakatu da Zinemaldia gauzatu eta hazteko beharrezkoak diren kalitatezko talentua eta babesleak erakartzeko.



05. Araudia

Jasangarritasunaren arloko gaur egungo araudiaren azalpena eta etorkizuneko arauzko eskakizunen proiektzioa, horiei aurrea hartzeko

2021ean onartutako Energia Trantsizioaren eta Klima Aldaketaren 2021-2024 Planak helburu hauek ditu: berotegi-efektuko gasen emisioak % 30 murriztea, energia berriztagarrien kuota energiaren azken kontsumoaren % 20 izatea lortzea eta euskal lurraldeak klima-aldaketarekiko erresiliente izango direla ziurtatzea. Beraz, agenda ofizialari jarraikiz, epe laburrerako lehen helburu gisa, karbono-aztarna % 30 murriztu behar da 2024rako.

Parisko Akordioaren arabera, emisioak % 40 murriztu behar dira 2030erako. Hori kontuan hartuta, epe ertainera bete beharreko bigarren helburu bat dugu, erreferentzia gisa.

06. Mugarriak

Denboran bete beharreko mugarriak

A. NEURKETA AUTOMATIZATZEA

- Aurreikustea eta eskuz neurtzea, prozesu automatiko osoa bi aldiz egiaztatzeko, guztia baliozkotu arte.
- Donostia Zinemaldiaren kudeaketa-softwareak identifikatzea.
- Gailu adimendunak, baskulak, tenperatura-sentsoreak eta emari-neurgailuak instalatzea, Zinemaldiko kokaleku garrantzitsuenetako benetako energia- eta ur-kontsumoa, sortutako hondakinak eta tenperatura automatikoki jasotzeko.
- Kontrol-panel bat sortzea, Donostia Zinemaldiaren jasangarritasunaren jarraipena denbora errealean eta hodeian egiteko.
- Donostia Zinemaldirako bisitaldiak programatzea, jasangarritasunaren ebaluazio kualitatiboa egiteko, hots- eta argi-kutsadura neurtzeko, etab.
- Zinemaldian parte hartzen duten hornitzaile eta profesionalen jardueraren jasangarritasuna ebaluatzea.
- Donostia Zinemaldiaren jardueraren jasangarritasunaren Big Data eraikitzea, ratioak eta iragazkiak sortzea, eta parametro guztiek denboran duten bilakaeraren jarraipena egitea.



06. Mugarriak

B. FASEAK

1. Urtea: Karbono-aztarnaren bigarren neurketa

- Karbono-aztarna neurtzea.
- Hornitzaileak aztertzea.
- Neurriak ezarri ondorengo murrizketa aztertzea
- Arreta zazpi emisio-eremuetan jasangarritasuneko neurri orokorrak ezartzean jartzea.
- Hobetzeko aukerak zehaztea
- Hartu beharreko neurriak garatzea.
- KPlak zehaztea.
- Ikaskuntzak ateratzea.
- Jasangarritasun Plana berrikustea epe ertainean.

3. Urtea: Jan-edanen kontsumoa.

- Karbono-aztarna neurtzea.
- Murrizketako KPlak berriz ebaluatu eta doitzea.
- Lortutako mugarriak baliozkotzea.
- Urte honetan, arreta jan-edanen eta uraren kontsumoan jartzea. Jan-edanen eta uraren kontsumoaren auditoretza sakona egitea.
- Karbono-aztarna murrizteko neurriak ezartzea zazpi emisio-kategorietan.
- Ikaskuntzak ateratzea
- Jasangarritasun Plana berrikustea epe ertainera.

5. Urtea: Garraioa eta mugikortasuna.

- Karbono-aztarna neurtzea.
- Murrizketako KPlak berriz ebaluatu eta doitzea.
- Lortutako mugarriak baliozkotzea.
- Urte honetan, arreta garraioan eta mugikortasunean jartzea.
- Garraioaren eta mugikortasunaren auditoretza sakona egitea.
- Karbono-aztarna murrizteko neurriak ezartzea zazpi emisio-kategorietan.
- Ikaskuntzak ateratzea.
- Jasangarritasun Plana berrikustea epe ertainean.

2. Urtea: Energia eta materialak:

- Karbono-aztarna neurtzea.
- Murrizketako KPlak ezartzea.
- Lortutako mugarriak baliozkotzea.
- Urte honetan, arreta energia garbietarako trantsizio energetikoan eta materialen erabileran jartzea.
- Energiaren eta materialen erabilerari buruzko auditoretza sakona egitea.
- Karbono-aztarna murrizteko neurriak ezartzea zazpi emisio-kategorietan.
- Ikaskuntzak ateratzea.
- Jasangarritasun Plana berrikustea epe ertainean.

4. Urtea: Hondakinak eta ostatatzea.

- Karbono-aztarna neurtzea.
- Murrizketako KPlak berriz ebaluatu eta doitzea.
- Lortutako mugarriak baliozkotzea.
- Urte honetan, arreta sortutako hondakinetan eta ostatatzean jartzea. Hondakinen eta ostatatzearen kudeaketari buruzko auditoretza sakona egitea.
- Karbono-aztarna murrizteko neurriak ezartzea zazpi emisio-kategorietan.
- Ikaskuntzak ateratzea.
- Jasangarritasun Plana berrikustea epe ertainera.



06. Mugarriak

C. URTEKO MUGARRIAK

1. Urtea: Karbono-aztarna %15 murriztea

- Ahaleginak mugikortasunera eta ostatatzera bideratzea, karbono-aztarnan ehuneko handia murrizteko.
- Jasangarritasunaren arloko efizientzia hobetzea beste bost emisio-eremuetan; horretarako, politika argiak ezartzea, horiek zabaltzea eta horiek behar bezala aplikatzeaz kontzientziatzea.

3. Urtea: Karbono-aztarna %10 murriztea

- Energia-kontsumoaren eta materialen erabileraren efizientiaren maximizazioa monitorizatzea.
- Jan-edanen eta uraren kontsumoaren efizientzia maximizatzea.
- Efizientzia orokorra lantzen jarraitzea gainerako emisio-kategorietan.

5. Urtea: Karbono-aztarna %5 murriztea

- Energia-kontsumoaren, materialen erabileraren, jan-edanen eta uraren kontsumoaren eta hondakinen eta ostatatzearen kudeaketaren efizientiaren monitorizatzea.
- Arreta mugikortasunaren efizientzia maximizatzean jartzea.

2. Urtea: Karbono-aztarna %15 murriztea

- Mugikortasunaren eta ostatatzearen inpaktua murrizteko lanean jarraitzea, bi urterako asmo handiko helburuak eskatzen duen inpaktu positibo handia lortzeko.
- Energia-kontsumoaren eta materialen erabileraren efizientzia maximizatzea.
- Efizientzia orokorra hobetzen jarraitzea gainerako emisio-kategorietan.

4. Urtea: Karbono-aztarna %7 murriztea

- Energia-kontsumoaren, materialen erabileraren eta jan-edanen eta uraren kontsumoaren efizientiaren maximizazioa monitorizatzea.
- Arreta hondakinen eta ostatatzearen kudeaketaren efizientzia maximizatzean jartzea.
- Efizientzia orokorra lantzen jarraitzea mugikortasunaren arloan.

Zinemaldiaren bi urterako helburua Energia Trantsizioaren eta Klima Aldaketaren 2021-2024 Plana betetzea da. Plan horren arabera, emisioak % 30 murriztu behar dira.

Zinemaldiaren bost urterako helburua da bere karbono-aztarna % 57ra murriztea, 2022ko edizioaren aldean. Horretarako, emisioak % 43 murriztu beharko dira 2027rako. Hori eginez gero, Parisko Akordioan ezarritako magnitudeak hiru puntutan eta hiru urtetan gaundituko lirateke, 2030erako emisioak % 40 murrizteko xedea ezartzen baitu akordio horrek.